

2005/06

eskolako
agenda 21
aretxabaleta

GAIA:

ENERGIA

eskolako agenda 21 aretxabaleta

(2005/06)

Galemys S.L.



_sarrera

2005-2006 ikasturterako Aretxabaletako udalak GALEMYS S.L. enpresaren laguntza kontratatatu zuen herriko bi ikastetxeei Eskolako Agenda 21 proiektuan laguntzeko, batik batik herri mailako partaidetzaren ardatzaren garapenean.

Proiektua "energia gure herrian" izendatu zen.

_partaideak

Aretxabaletako 2 ikastetxek hartu dute parte proiektuan. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 312 ikaslek denera, hurrengo taulan agertzen den bezala banatuta.



ESKOLA	ZIKLOAK	IKASLE KOPURUA
KURTZEBARRI - LH	LH-1 / LH-2 / LH-3	
KURTZEBARRI - BHI	DBH-1 / DBH-2	83 / 59

ZIKLOAK	LH	DBH
KOPURUA	170	142

eskolako agenda 21 aretxabaleta

_egutegia eta ekintzak

Otsaila

Ikasturtearen hasieratik bi eskolak CEIDAREN bidez Eskolako Agenda 21 proiektuan lanean hasi ziren eskualde mailan eskolen arteko koordinazio bileretara joanez eta eskolako diagnostikoa zein kurrikulumen hobekuntza lantzen. Baina herri mailako edo komunitateko partehartze ardatzean oraindik ezer egin gabe zegoen.



Otsailaren 8an aurreneko bilera egin zen, CEIDA (Joxan Azurmendi), Udala (Kultur teknikaria eta Ingurumen zinegotzia), bi eskoletako zuzendariak eta Galemys (Izaskun Orbegozo) partaideak izanik. Bilera honetan proiektuaren aurkezpena egin zen, filosofia, helburuak eta metodologia mahi gainean jarritz. Baita ere balio izan zuen egutegia finkatzeko eta partaideak elkar ezagutzeko.

Eranskinak 1: deialdiak

Martxoa

Hurrengo hilabetean Galemys-ek materialen eta ekintzen proposamena egin zuten eskolei (4 ariketa ziklo bakoitzari zuzenduak) eta proiektuaren arduradunek erabaki egin zuten zeintzuk egin maila bakoitzean. Banaketa honetan energiaren aspektu desberdinak lantzeko saiakera egin zuten. Ekintza hauek burutu ahal izateko hainbat informazio banatu zitzaizkien: Aretxabaletako ingurumen diagnostikoa, energiaren kontsumoa lan sektore desberdinetan, energia Euskal Erkidego Autonomoan, Aretxabaletako enpresen zerrenda telefonoekin, RENOVE plana eta abar.

Hauek egin eta gero ondorioak ateratzeko eta hauen analisietatik udaletxera eramateko proposamenak eta konpromisoak ateratzen ere lagundu egin zitzaizkien.

AUKERATUTAKO AKTIBITATEAK	LH-1	LH-2	LH-3	DBH-1	DBH-2
Birziklaia	X				
Herriko gida (Energia herrian)		X			
Tramankulu baten eraiketa			X		
Lurra planetaren azterketa			X		
Aldaketak energia kontsumoan				X	
Energia eraginkortasunaren neurketa bakoitzaren etxean				X	
Diagnostikoa enpresa eta komertzioetan				X	
Energia eraginkortasunaren neurketa bakoitzaren etxean					X
Egia ala gezurra					X
Diagnostikoa udal eraikuntzetan					X

Eranskinak 2: materialak

eskolako agenda 21 aretxabaleta

Hile honetan kultur teknikariarekin batera eskutitz bat prestatu zen alkatearen izenean enpresa eta komertzioetan kolaborazioa eskatuz.

Eranskinak 3: eskutitza

Maiatza

Hile honetan bi data izan dira aipatzekoak. Alde batetik 11ean ikasleen foroa ospatu zen arratsaldeko ordu bi eta erdietan. Bileran honetara ziklo desberdinetako ordezkariak etorri ziren eta Galemyseko bi hezitzaileen laguntzaz, bi taldetan banatuta, besteen aurrean egindako lana aurkeztu zuten ikasleek eta beraien ondorioak, proposamenak eta konpromisoak irakurri.

Eranskinak 4: ikasleen ondorioak, proposamenak eta konpromisoak.

Gero denon artean eta gometxak banatu eta udaletxera eraman behar ziren proposamenen artean beraiantzako garrantzitsuenak zirenak aukeratu zituzten lehentasunak finkatuz.

Eranskinak 5: dinamizazio proposamena

Hilearen azken egunean finkatu zen Tokiko Agendaren bilera berezia ikasleen ekarpenak entzuteko. Galemysek eta kultur teknikariek aretoa ikusi eta saiorako behar ziren baliabideak prestatu zituzten (power point-a eta txosten idatzia eta maketatuta Galemysek eta aulkiak, deialdiak, ordenagailua eta kanoia teknikariak).



Denera 60 bat pertsona etorri ziren pleno berezi honetara: politikariak, teknikariak, gurasoak, irakasleak eta ikasleak. Prentsa eta Urolako telebista ere etorri ziren.

Alkatesak aurkezpena egin zuen eta ikasleei hitza eman. Hauek beraien lana aurkeztu eta ondorioak zein proposamenak eta konpromisoak azaldu zituzten Tokiko Agenda 21en partaideen aurrean. Alkatesak hainbat erantzun eman bazituen ere konpromisoa hartu zuen departamentu desberdinetan aztertzeko eta eskoletara erantzun idatzia bidaltzeko. Zinegotzi batek ere hitza hartu zuen bere iritzia emateko eta udalak eskolei egindako lana eskertuz amaitu zen saioa.

Eranskinak 6: txostena eta power point aurkezpena

eskolako agenda 21 aretxabaleta

_ebaluazioa

Eskolen arteko koordinazio bileran gure laguntzaren atala ebaluatu gabe gelditu zen irakasleen aldetik. Gure balorazioa zerbaitetarako balio badu esan behar dugu aurreneko urtea izateko irakasleen inplikazioa eta jarrera oso ona izan dela eta kultur teknikariarekin izan dugun harremana eta elkar lana xamurra, atsegina eta efektiboa iruditu zaigula.

Bestalde proiektuak herritarren artean oihartzuna izan dadin komunikabideei deitu egin zaie eta berri oso ondo azaldu dute.

Eranskinak 7: Komunikabidetan berria



eranskina I



eranskina II



eranskina III



eranskina IV



eranskina V



eranskina VI



eranskina VII